

## KONTRAKO BI ELIZ EREDU

Joanden apirilaren 27an, Frantses Aita Sainduak kanonizatu ditu Joanes XXIII. eta Joanes Paulo II. Aita Saindu izanak.

Gertakariak hainbat erreakzio eta komentario sortu ditu alde askotarik mundu osoan gaindi. Nere partetik, irakurri eta entzun ditudan hainbat iritziren sintesi "gidatu" bat proposatzen dautzuet.

Ikuskatzaile gehien arabera, bi Aita Sainduen aldi bereko kanonizazioa ekintza erlijiosoa baino gehiago ekintza politiko bezala ikusi behar da, hain dira kontrakoak bai bi pertsonaiak berak, bai biek itxuratzen duten eliz ereduak.

Joanes Paulo II.ren kanonizazioa aintzin-ikusia eta ezinbestekoa bezala ager daiteke. Gogoan dugu haren ehorzketa egunean berean agertu zirela Jondoni Petri enparantzan pankartak "Santo Subito" (Berehalako Saindu) izendatua zadin eskatzen zutenak. Bederatzi urte geroago, nihor gutik kolokan jartzen du poloniar Aita Sainduaren "saindutasuna". Aldiz, kritikatu da haren kanonizatzearen egokiera, bereziki historia garaikideak azken urte hauetan ezagutzerat eman dituen "ilun-guneak" ikusirik. Carlo Maria Martini kardinalak berak ez zuen beharrezkotzat jotzen kanonizazio hau: *"nahikoa da Elizaren alde eta arimen zerbitzurako [Joanes Paulo IIak] agertu duen ardura kartsuaren lekukotasun historikoa gorestea"* zioen.

Jose Maria Castillo teologoaren arabera, *"Elizaren interesek errotik aldatu dute saindutasunaren irudia"* mendetan zehar. *"Nahi den Eliza hobekienik agertzen da kanonizatzen diren sainduen eredu"*, eta nahi ez den Eliza agertzen da kanonizatzen ez diren sainduen eredu. Kanonizazioak, beraz, interes izpiritualaz gain, interes politikoak, sozialak eta berdin ekonomikoak dakarzki.

Karol Wojtila nortasun eta hedadura izigarriko gizona izan bada, kontrastez josia ere agertzen da. Eta ez dira guti haren kanonizazioa desegokitzen edo, gutienez, goiztiartzat jotzen dutenak. Eta ez dute argumenturik falta. Huna zombait.

Eliz barnean, pentsamendu eta erakaskuntza askatasuna menderatu du, 500 teologoz goiti ixiltasunera behartuz edo eskumikatuz.

Anti-marxismoak "itsuturik", Askapenaren Teologiaren etsaia izan da (adituen arabera, ez zuen hau barnetik eta funtsean ezagutzen); pobreen Elizaren desartikulazioa bermatu du, hunen ordezkari nagusienak kondenatuz, teologia erakaskuntza zentroak hetsiz, eta Amerika-Latindar lurraldeetan botere politikoaren alderdi kontserbadorekin batasuna eginez. Eta nola ez aipa hemen **Oscar Romero**, San Salvador-eko artzapezpikua, 1980ko martxoaren 24ean eraila, saindu ez-ofiziala, **San Romero de América bezala herriak kanonizatua**, eta Eliza Katolikotik aparte ere ohoratua. Ez zuen ongietorri berorik ukan Joanes Paulo II.ren ganik 1979ko maiatzean Erromara egin zion bisitan: diplomaziaren eta ebanjeliozko egiaren arteko elkartzintasunaren esperientzia latza egin zuen Romero-k. P. Casaldaliga apezpikuak *San Romero de América, Pastor y Mártir nuestro* olerkian idazten du: *"Las curias no podían entenderle: ninguna sinagoga bien montada puede entender a Cristo"* ("Kuriak ezin zintuzketen ulertu: ez dago sinagoga ongi muntaturik Kristo ulert dezakeenik").

Bestalde, emazteen duintasuna kolpatu zuen, haueri eliz erabakietan gizonen pareko gaitasuna ukatuz, berdin apez ministeritza, edo oraino xoilik emazte-esposaren edo birjinaren irudia goretsiz.

Duela guti, beste batzuen ondotik, Canal + telebista kateak bi "eskandalo" argirat eman ditu:

- Batikanoko Bankoarena (IOR): fama iluneko Paul C. Marzincus aski ez balitz, ikasten da IOR-ek loturak dituela kalabriar mafiarekin...

- pederastia eta pedofilia kasuak, gehienik amerikar elizan: 16 000 haur edo gaztetxo deklaratuak... Elizak hiru miliar dolar (!) ordaindu du damu-domaietan...

Bost eginahalak egin zituen Joanes Paulo II.ak hau guzia (eta bereziki Marcial Maciel, "Kristoren Legionarioak" batasunaren sortzailea) "estaltzeko", gutienez "ez-jakinarena" eginez.

Joanes Paulo II.ren kanonizazioa goraki eskatzen zutenak dira, kristau zintzo askorekin batera, eliz eredu zehatz baten bultzatzaileak: esku bortitza, hierarkia piramidala, dogma, doktrina, morala... Gaur egun eztabaidatua den eliz eredu. Irriskua zen orduan Joanes Paulo II.ren

kanonizazioa, “saindu” baten kanonizazioa baino gehiago, eliz eredu zehatz baten kanonizazioa bezala agertzea.

Eta hemen ikusten da Frantses Aita Sainduaren esku abil eta trebea: huna nun Joanes Paulo II.ren aldean (edo parean) jartzen duen Joanes XXIII.a ! Angelo Roncalli (1881-1963) ! Eliz primaderaren bultzatzailea ! Batikanoko II. Kontzilioa deitu zuena ! Gizon ximplea, artzaina, ohoregose gabea, bainan munduaren errealitatea, arrangurak eta ametsak argi ikusten zituena ! Katolizismoaren leihoak ideki zituena aire freskoa sar zadin ! Iraultzailea ! Pobrean Eliza aldarrikatu zuen gizona !... Eliz eredu bestelakoa, kontrakoa.

Nola irakurri itxurazko kontradizio hau ? Dударik gabe, Eliza barnea inharrosten duen krisiaren adierazgarri bezala. Bainan, aldi berean, gomita ere bada: erlijiozko fanatismotik urruntzeko eta justiziaren eta guzien ongizaitzaren alde engaiatzeko, Jesusek gogoko zuen hierarkia errespetatuz: “...zuen artean lehen izan nahi duena izan bedi zuen mutil” (Mt 20, 27).

***Peio Ospital***  
***2014-05-05***